

## 18. FITXA. Euskal Autonomia Erkidegoko landa- eta hiri-eremuetan emakumeei laguntzeko programa garatzeko dirulaguntzen deialdia

**Norentzat:** EAeko udalak eta tokiko sektore publikoko erakundeak, besteak beste // Aurreikuspenen arabera **udalerrri bakar batean** garatuko diren proiektuetan, eragindako udalerriko **biztanleak ez dira 5.000 baino gehiago izango**, eta **udalerrri bat baino gehiagotan gauzatuko diren proiektuetan**, haien lurralde-eremuak **5.000 biztanletik beherako udalerrien % 35 bildu beharko du gutxienez.**

**Sartzeko esteka:** [Esteka Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua](#)

**Erreferentziako araudia:** EHAA

**Arloak:** Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa

**Zenbatekoa:** 773.662 euro

**Aurkezteko azken eguna:** 2023/09/29

### Laburpena

Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren «Zainketen ekonomia berria eta enplegu-politikak» VIII. palanka-politikan, «Lan-merkatu dinamikoa, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak» izeneko 23. osagaia dago, Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioaren gidaritzapean, eta egiturazko erreformarako dituen lehentasunezko ekimen traktoreetan Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak parte hartzen du.

Osagai horren erronka eta helburua da, elkarrizketa sozialaren esparruan, **Espainiako lan-merkatuaren erreforma bultzatzea, egungo errealitatera eta beharrianetara egokitzeko**, aukera eman dezan egiturazko ahuleziak zuzentzeko, eta, horrela, egiturazko langabezia eta gazteen langabezia murrizteko, dualtasuna zuzentzeko, giza kapitala hobetzeko, negozioazio kolektiboa modernizatzeko eta enplegu-politika publikoen efizientzia handitzeko, eta, gainera, enplegu-politika aktiboei bultzada emateko, gure ekonomiak behar dituen eraldaketak egiteko behar den arloetan langileak gaitzera bideratuta.

Osagai horretan proposatutako erreforma eta inbertsioen artean, 2. inbertsioa dago: **«Emakumearen enplegua eta genero-zeharkakotasuna enplegua aktibatzen laguntzeko politika publikoetan»**; bertan txertatzen da «Landa- eta hiri-eremuetan emakumeei laguntzeko programa».

### Onuradunak

Honako erakunde hauek izan daitezke deialdi honetan aurreikusitako laguntzen onuradun:

- Foru-aldundiak eta foru-sektore publikoa.
- **EAeko udalak** eta tokiko sektore publikoko erakundeak.
- EAeko sektore publikoko erakundeak.
- EAeko tokiko edo eskualdeko garapen-agentziak eta horien elkarte-erakundeak.
- Hezkuntza Sailaren edo Garapen Ekonomiko, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren mendeko prestakuntza-erakundeak.



- o EAEn diruz lagundutako jarduera gauzatzeko baliabide egokiak dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde juridikoak, baldin eta ekintza horiek egiten esperientzia dutela egiaztatzen badute.

## Gastuen aldi hautagarria

Eskaerak aurkezteko epea 2022ko urtarrilaren 17an hasi eta 2023ko irailaren 29an amaituko da.

## Laguntzen zenbatekoa eta mota

Dirulaguntzak.

Erakunde onuradun bakoitzak eskatutako zenbatekoa **ezingo da izan deialdiaren zuzkidura osoaren % 20 baino handiagoa** .

Ibilbide pertsonalizatuak garatzeko dirulaguntzaren finantziario osoa dagokion emakida-ebazpenean zehaztuko da, artatu beharreko emakume-kopuruaren, aurreikusitako laneratze-helburuen eta dagokion moduluaren arabera. Honela:

a) **Artatutako emakume bakoitzak 1.715 euro jasoko ditu**, materialei, gai teknikoei, publizitateari, emakume parte-hartzaileak artatzen dituzten langileen prestakuntzari eta abarri dagozkien gastuak barne.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoari 2.500 euro gehituko zaizkio lan-merkatuan sartutako emakume bakoitzeko, baldin eta aldeztu aurretik artatua izan bada; edo 6.000 euro, gehienez, norberaren konturako jarduera ekintzailea hasten duen emakume bakoitzeko. Kopuru gehigarri horiekin, lan-merkatuan sartzea lortzen duten parte-hartzaileen % 20ri bakarrik emango zaie dirulaguntza.

## Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

- **Enplegarritasunaren diagnostikoa** eta laneratzeko ibilbide pertsonalizatua. Aldez aurretik enpleguko akordio pertsonala lortu ondoren, parte-hartzaileek Programan parte hartzen duten bitartean garatuko dituzten jarduerak identifikatuko ditu, eta ematen zaien arreta egituratuko du, horiek gauzatzeko egutegia, jarraipen-sistema eta haien enplegarritasunaren bilakaerari dagokionez egindako lanaren emaitza barne.
- **Lan-orientazioko ekintzak** eta parte-hartzaileen enplegu-bilaketa erraztekoak, **sentsibilizazio-jarduerak** eta okupaziorako alderdi pertsonalak garatzeko jarduerak barne, baita enplegua aktiboki bilatzeko prozesu, teknika, baliabide eta tresnei, curriculum egiteari, lan-elkarrizketarako tailerrari eta abarri buruzkoak ere.
- **Lanbide-kualifikazioko eta -birkualifikazioko prestakuntza-ekintzak**, lan bat egiteko ezagutza teknikoak eta trebetasun egokiak eta nahikoak eskuratzeko modua emango dutenak. Parte-hartzaile guztiek prestakuntza-espezialitate hauetakoren bat egin beharko dute, gutxienez:
  - FCO108: ekintzailetzarako oinarrizko gaitasun digitalen hastapenak.
  - FCO106: oinarrizko gaitasun digitalen hastapenak.
  - FCO107: enplegurako oinarrizko gaitasun digitalak.
    - **Zeharkako gaitasunei eta ahalduzkoari buruzko tailerrak**, parte-hartzaileak laneratzeko eta gizarteratzeko eta enplegua lortzeko berdintasuna indartzeko.
    - **Parte-hartzaileek egindako ibilbide pertsonalizatuaren garapenean laguntzea.**
    - **Lan-merkatuaren prospekzioa**



## Beste alderdi interesgarri batzuk

Deialdi honetan aipatzen diren dirulaguntzen eskabideak **Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Heziketako zuzendariari zuzenduko zaizkio, elektronikoki izapidetuko dira.** Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren prestakuntza-aplikazio informatikoaren bidez (LanF), eta erakundearen legezko ordezkariak elektronikoki sinatu beharko ditu.

Aplikazio horretarako sarbiderik ez duten erakundeek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren webgunearen bidez eskatu ahal izango dute, <https://www.lanbide.euskadi.eus/prestakuntza/-/informazioa/erakundeen-erregistroa/>

Hain zuen, **Administrazio-prozeduraren informazio-fitxan**, hor baitaude izapidetze elektronikorako jarraibideak; honako helbide honetan egongo da eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2021/mru/web01-tramite/eu/>